

## BALIO PROPOSAMENA:

Gaur egungo ikasleen eta gazteen artean %18,3ak ikasteko arazoren bat du eta zifra hau urteak pasa ahala pixkana igotzen doa. Hori dela eta, gure proiektuarekin ikasteko arazoak dituzten ikasleek "sufritzen" duten diskriminazioarekin amaitu nahi dugu gure proiektuaren helburua, pertsona orok bere gaitasunak eta talentuak garatu eta trebetasun berriak berdintasunean garatu ahal izango dituen esparruak lortzea izango da, baita beraiei egokitutako "ikasketa planning-ak" sortu, beraiei ere kurtsoa askoz ere eramangarriago egiteko eta beraien gurasoek etxean egin behar duten lana gutxitzeko; izan ere, gurasoek ere asko sufritzen dute eta izugarritzko lana egin behar dute gelan emandakoa berriro ere errepasatzen edota ikasketa metodo berriei teoria irakasten, irakasleak izango balira bezala; askok ez dakitenean rol hori hartzen.tr

Gure proiektuarekin gehien bat zailtasun hauek dituztenei lagundu nahi diegu:

1. **Dislexia:** Batezere hitzak zehaztasunez eta arintasunez irakurri eta letreiatzeko gaitasunei eragiten dion zailtasun bat da.
2. **Diskalkulia:** matematikarekiko zailtasuna.
3. **Disgrafia:** Idazteko zailtasuna.
4. **Entzumen-prozesamenduaren nahasmendua:** Entzuten den informazioa prozesatzeko zailtasuna.
5. **Ikusizko prozesamenduaren nahasmendua:** Ikusizko informazioa interpretatzeko zailtasuna.
6. **Hizkuntza hartzailearen eta adierazkorraren nahasmendua:** Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren zailtasuna.
7. **Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (ADHN) edota TDAH:** Arretarekin eta autokontrolarekin zailtasuna.
8. **TDA:** Arretarekin zailtasunak, garapen neurologikoaren arreta-defizitak eragindako nahasmendua.
9. **Espekto autistaren nahasmendua (TEA):** Gizarte-elkarreraginarekiko eta komunikazioarekiko zailtasuna.
10. **Zehaztu gabeko ikaskuntzaren nahasmendua:** Ikasteko zailtasuna, beste kategoria espezifiko batzuetan sartzen ez dena.

### **Gaur egun ikastolek hainbat hutsegite dituzte:**

Zailtasun hauek paraitzen dituzten ikasleak identifikatzeko zailtasunak daude.

Irakasleak formakuntza eza dute arlo honetan orain arte ez baita behar bezala garatzen beraien ikasketetan.

Ikastetxeak ere ez daude behar aina kontzientziatuta zailtasun hauen ondorioz.

Ez dago banakako laguntza-programarik ikaskuntza-nahasmenduak dituzten ikasleentzat.

Ikasle horien premia espezifikoei erantzuteko gaitutako langile eta baliabide eskasia.

Irakasleen kontzientziarik eta ulermenik eza ikaskuntzaren nahasmenduei buruz.

Ikasle horien beharrei heltzeko irakaskuntza-metodoak egokitzeko mugak.

Irakasleen, gurasoen eta osasun-profesionalen arteko lankidetzak eskasa estrategia eraginkorrak garatzeko.

Ikaskuntza-nahasmenduak dituzten ikasleen autoestimuari eta ongizate emozionalari heltzeko neurriak eza.

Malgutasunik eza ikasle horien errendimendu akademikoaren ebaluazioan.

Teknologiak eta laguntza-tresnak eskuratzeko mugak, ikaskuntza-nahasmenduak dituzten ikasleei mesede egin diezaieketenak.

Trantsizio-programa gutxi daude ikasle horiek goi-mailako hezkuntzarako edo lan-merkatuak prestatzeko.

Zailtasun hauek garaiz eta behar bezala ez badira lantzen, ondoriak latzak dira ikasleei hauentzako: autoestimu baxua, estresa, portaera arazoak eta errendimendu baxuak eragin ditzakete.

Arazoari aurre egiteko lehen urratsa da metodo eraginkor bat edukitzea horrelako zailtasunak dituzten pertsonak detektatu eta diagnostikatu ahal izateko. Kontuan izan behar da gaur egun diagnostiko oso garestien bidez soilik lor daitekeela hori (400€ baino gehiago diagnostiko bakoitzeko). Horregatik guztiagatik, gure proiektua hasierako fasean APP bat sortzen saiatuko da, irakasleei modu errazean alerta bat sortzeko aukera emango diena pertsona batek zailtasun horietakoren bat izan dezakeela hautematean.

Guk gure proiektuarekin arazo hauei aurre egiteko formazio eta ikasketa metodo ezberdinak eskeinitu ditugu; arazoak dituzten ikasle hauen berezko abileziak indartuz. Hau ez da beste ikasketa eremutan ematen eta hori da guri bereizten gaituena ekonomikoki "merkea" izateaz gain; ez dugu nahi bezeroak guri izugarritzko dirutza ordaintzea soluzio azkarrak bilatzeko intentzioekin; baizik eta denbora hartuko duen proiektua denez eta gizartean pausu bat aurrera ematen dugunez, denen poltsikuetara egokituko den dirua ordainduko digutela espero dugu, gauza berritzailea delako.